

artificial natures  
natura artifizialak

ekaina | uztaila  
june | july

46

the balde



0€

# 46



## the balde

**antsoain 1**  
**31014 iruñea**  
**t. +34 948 12 19 76**  
**f. +34 948 14 82 78**

**donostia ibilbidea. 11 behe.**  
**20115 astigarraga**  
**t. +34 943 44 44 22**  
**f. +34 943 33 60 66**

**info@thebalde.net**

**publi@thebalde.net**  
**m. +34 686 485 980**

**www.thebalde.net**

**argitaratzailea / publisher:** eragin.com · komunikazioa eragin sll

**editore / editor:** iñigo martinez

**zuzendaria / director:** koldo almandoz

**diseinu burua / head of design:** martin etxauri

**zuzendari komertziala / comercial director**

**& publizitatea / publicity:** iñigo martinez

**diseinua / design:** martin etxauri, txuma vazquez, marisa mantxola, ekaitz auzmendi, iker bereziartua, ainara gorostiaga, igor astigarraga.

**itzulpenak / translations:** 11 itzulpen, smiley.

**ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue:** arkaitz villar, uxeta labrit, aritz galarraga, ithaka estudioa, jim denevan, myriam gartzia, maider lacalle, hanna von goeler, agurtzane ortiz.

**ale honetako argazkilariak / photographers this issue:** the balde crew, frann rezende, jim denevan, annie bertram, frann rezende, oriol clavera, itziar diaz de durana.

**komikia / comic:** pepe farrugo

**harpidetza orria / subscription page:** ekato


**azaleko irudia / cover image:** jim denevan

**aurkibidea / sumary:** txo!?

**inprimategia / printed at:** espacegrafic

**lege gordailua / legal:** na-3244/01

**The Baldek sortutako eduki guztiek honako lizentzia pean daude:**

 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehaztetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



Eusko Jaurlaritzako  
Kultur sailak diruz  
lagundutako aldizkaria

Lan berrizaille, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula?

bidali ieazkiguzu:

Imaginative, provocative and interesting works?

send them to:

**info@thebalde.net**



## BIZARRE MONUMENTS

### jugoslavia monumental

Jan Kempnaers-ek bilduma berezia osatu du garai batean Jugoslavia izeneko herrialdean barna egin duen bidaian ateratako argazkiekin. Titoren garaian eraikitako monumentuen bilduma egin du. Guda eremuetan eraikiak gehienak, ukazina da soldaduen eta gertaera militarren omenez egindako arkitektura eskultoriko hauen berezitasuna.

[www.crowngallery.be/kempnaers.htm](http://www.crowngallery.be/kempnaers.htm)

### monumental yugoslavia

Jan Kempnaers has put together a special collection of photos taken on journeys through the country once known as Yugoslavia. He's made an album about the monuments built during the Tito era. Most of them are related to war, with all the characteristics of sculpture and architecture in homage to soldiers and military events.

[www.crowngallery.be/kempnaers.htm](http://www.crowngallery.be/kempnaers.htm)



### uda oinetan

Azken urteotan, sasoi beroa gerturaten denean, txankletak, gure oinetako lehen bi behatzei besarkatu eta kalera ateratzen dira. Karramarrotan aritzeko plastikozko sandaliak ez dira apenas ikusten, eta espartinak ere garairik onenean ez daudela esango genuke. Espartinazaleak izanik, begi onez ikusten dugu moda marka batzuk oinetako berezi hau berreskuratu eta berritzeko egiten ari diren ahalegina.

### summer on our feet

In recent years, sandals cling onto our first two toes and go out to the street when the weather gets hot. You hardly see crab-type plastic sandals any more and traditional sandals aren't at a high point either. Being in favour of the traditional sandals, it's good to see that some brands have taken on this style once more and are working to renovate it.

### monegros 18/07/09

Desertuko jaialdia bueltan da. Dantza eta musika elektronikoa nagusi izaten den jaialdian, aurten, hip-hop estilo ezberdinak jorratzen dituzten lau proposamen berezi izango dira hautsa harrotuko dutenak: Calle 13, Tego Calderon, La Excepcion eta Tote King Band. San ferminetako ajea pasatzeko modu hoberik ez zaigu bururatzten.

[www.monegrosfestival.com](http://www.monegrosfestival.com)

### monegros 18/07/09

The desert festival's back again. Electronic music and dance are normally the main dish at the festival, and this year the dust-lovers are making a special offer of various styles of hip-hop: Calle 13, Tego Calderon, La Excepcion and Tote King Band. There can't be a better way to get over the hangover from San Fermin.

[www.monegrosfestival.com](http://www.monegrosfestival.com)





**ATARDECER EN LA PLAYA ...**

FOTOGRAFÍA © ROKE

OTRO DÍA DE SURF EN TU VIDA...

MIL IMÁGENES MÁS PARA RECORDAR, SENSACIONES PARA CONTAR Y COMPARTIR CON TUS AMIGOS...

**AMSTEL SurFilm Festival**

DONOSTIA ➔ 11,12,13 Y 14 DE JUNIO

MÁS INFORMACIÓN EN [WWW.SURFILMFESTIVAL.COM](http://WWW.SURFILMFESTIVAL.COM)

**AMSTEL SURFARI**

VARIOS SPOTS ➔ 12, 20 Y 21 DE JUN., 31 JUL., 1 Y 2 DE AGOSTO

MÁS INFORMACIÓN EN [WWW.SURFILMFESTIVAL.COM](http://WWW.SURFILMFESTIVAL.COM)

**AMSTEL COSMIC CHILDREN**


PLAYA DE LIENCRES, SANTANDER ➔ 20 Y 21 DE JUNIO

MÁS INFORMACIÓN EN [WWW.COSMICCHILDREN.COM](http://WWW.COSMICCHILDREN.COM)

**SALINAS LONGBOARD FESTIVAL**

PLAYA DE SALINAS (ASTURIAS) ➔ 31 DE JULIO, 1 Y 2 DE AGOSTO **AMSTEL NIGHT**

MÁS INFORMACIÓN EN [WWW.LONGBOARDSALINAS.COM](http://WWW.LONGBOARDSALINAS.COM)



## AKELARRE BATETARAKO PROPOSAMENAK

### doctor parnassus

Terry Gillian-en azken filmak ez du banatzailerik aurkitzen. Inork ez du Doctor Parnassus filma estrenatu nahi, Gillian-ek eskatzen dituen kondizioekin behintzat. Honez gero, Monty Python ohiaren azken harrikadak bidaiialagunik ez topatzeak ez gaitu harritzen. Askotan iruditzen zaigu Gillian-ek nahita sartzen duela hanka aurrean jartzen zaizkion putzu guztietan. Heather Ledger-en azken filma ikusteko, zurrenik DVDra edo sarera jo beharko dugu.

### doctor parnassus

Terry Gillian can't find distributors for his latest film. Nobody wants to distribute Gillian's latest film Doctor Parnassus, at least not with the conditions he has made. It's not surprising that the former Monty Pythoner can't find fellow travellers with his extravagant behaviour. It sometimes seems as if Gillian puts his foot in it whenever he has the chance to. We'll probably have to buy the DVD or watch Heather Ledger's last film on-line.



### euskal herria zuzenean, uztailak 3-4-5

Aurten Heletan ospatuko den EHZ jaialdiaren programa mundiala iruditzen zaigu. Bertoko talde berritzaileak kanpoko izenekin batzeari formula ederra deritzogu. Besteak beste, Borrokan, Deabruak Teilatueta, Sparteens, Willis Drumond, Zura eta Moxkorri-k, Bellrays, Seun Kut, Emir Kusturica & the No Smoking Orchestrarekin edo Beat Torrent-ekin batera entzuteko eta ikusteko aukerak merezi du.

[www.ehz-festibala.com](http://www.ehz-festibala.com)

### live in the basque country on july 3-4-5

The programme for this year's EHZ festival, to be held in Heleta, is magnificent. The formula of combining innovative local bands with foreign musicians is excellent. Amongst others, Borrokan, Deabruak Teilatueta, Sparteens, Willis Drumond, Zura and Moxkorri-k, Bellrays, Seun Kut, Emir Kusturica & The Non Smoking Orchestra and Beat Torrent are well worth seeing and listening to.

[www.ehz-festibala.com](http://www.ehz-festibala.com)



### gorputza 90 grados

Donostiako Noventa Gradosek ekimen interesgarria antolatu du LiquidDocks estudioarekin batera. Gorputza kontzeptua ardatz hartuta, urte osoan zehar hainbat erakusteka eta ekintza antolatuko dira Donostiako alde zaharreko kale nagusiko gune berezi horretan. Ekimen horren helburua ez da sorkuntzaren emaitza soilik erakustea, baizik eta emaitza horretara iristeko beharrezkoak izan diren prozesuak eta pausoak ere nolabait erakusgai jartzea.

[www.noventa-grados.com](http://www.noventa-grados.com)

### gorputza at 90 grados

Donostia's Noventa Grados and LiquidDocks studio have organized an interesting event. With the body as the central theme, throughout the year different exhibitions and events will held in this special Donostia's old town main street location. This initiative's objective is to show not just creative results but also the processes and steps that were taken to achieve them.

[www.noventa-grados.com](http://www.noventa-grados.com)

# mos

M08 ARTEA ETA IKERKETA  
09ko maiatzak 22 - abuztuak 30

## PROIEKTU ARTISTIKOAK

Ion Arregi **FONDO I: ESTIMAS, VARIACIONES Y CONTRADICCIONES ROMÁNTICAS** / Marcelo Expósito **NO RECONCILIADOS (NADIE SABE LO QUE UN CUERPO PUEDE)** / Aurélien Froment **THE FOURTH WALL** / André Guedes **AIROTIV** / Irene Kopelman **EL VUELO DE LÉVY** / Nathaniel Mellors **GIANTBUM** / Pia Rönicke **FACING** / Lisa Tan **LANGUAGE BARRIER**


## KOMISARITZA

**THERE IS NO AUDIENCE!**: Alikidd + Jade Sou, Can Altay, Fikret Atay, Johanna Billing, Gerard Byrne, Elmas Deniz, Olof Dreijer & Mamori, Hadley + Maxwell, Christian Hillesoe & Johan Tirén, Lynne Marsh, Ming Wong — Komisarioa: Adnan Yıldız

montehermoso fray zacarías martínez. 2 01001 vitoria-gasteiz +34 945 161 830 www.montehermoso.net



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia



## ROKANROL BANPIROAK




### vampire street art

Street art edo kale-arteak ez du mugarik. Graffitiaren enborretik hamaika adar ezberdin eta kimu berri jaiotzen da une oro. Eta marka eta negozio azkarrek ikasi dute hori profitatzen. Hementxe duzue, originala eta dibertigarria izateaz gain, oso erabilgarria iruditu zaigun kale iragarki bat. Sekula ez da jakiten non azalduko zaizun banpiro bat ...

### vampire street art

Street art has no limits. New branches and shoots spring from the trunk of graffiti art all the time. And brands and businesses have quickly learnt how to take advantage of this. Here's an original, fun warning which may also be very useful. You never know when a vampire may come out on you.



### andoaingo III. rock jaialdia ekainak 20

Andoainen eztanda soniko batekin eman zaio ongiatorria udari azken hiru urteetan. Jaialdiarako bonoak saltzeko trikimailu ugari ikusten ohituta gauden garaietan, Andoaingo Rock jaialdiak ez du horren beharrik. Jotzen duten taldeak erakargarriak direlako batetik, eta jaialdia debalde delako, bestetik: beste batzuen artean, señor no + roy loney, chesterfield kings, capsula...

### 3rd andoain rock festival june 20 th

Andoain's welcomed the summer with a bang for the last three years. There's no need for the usual schemes to sell festival tickets in Andoain. On the one hand, because some great groups will be playing; on the other hand, because it's free: among others: señor no + roy loney, chesterfield kings, capsula...

### behikaka

uztailak 26

Nafarroako Gobernuak diru-laguntza ia osoa kendu dio Xorroxin irratiari. Murrizketa horrek eta krisiak bultzatuta, dirua biltzeko modu xelebrea aukeratu dute. Xorroxin irratiaren egoitzaren aurrean dagoen zelaia 4.000 laukitxotan banatuko dute, eta bakoitzak zenbaki bat izango du. Antolatzaileen asmoa 4.000 zenbaki horiek saltzea da. Hiru behi askatuko dituzte zelai horretan, eta behiak kaka egiten duen laukitxoaren jabea izango da sariaren irabazlea. Yoko Onok sinatuko luke "performance" eder hau!

[www.behikaka.com](http://www.behikaka.com)

### cow pats

july 26 th.

The Government of Navarre has taken away almost all of Xorroxin Radio's subsidies. Because of this cut and the crisis, they've come up with a most peculiar way of raising funds. The field in front of Xorroxin Radio has been divided into 4,000 squares and each one is numbered. The organizers want to sell those 4,000 numbers. Three cows are going to be put into the field, and the owners of the squares they put cow pats in will be the winners. Yoko Ono would be proud of this beautiful performance!

[www.behikaka.com](http://www.behikaka.com)



# Ilusioaren Hizkuntza

Desioen hizkuntza. Irribarraren hizkuntza. Eta pozarena.  
Gauza txikien hizkuntza. Eta handiena. Borondatearen hizkuntza.  
Eta kalitatearena\*.

## LACUNZA

 A MEMBER OF THE INTERNATIONAL HOUSE WORLD ORGANISATION

Ingelesa. Frantsesa. Txinera.



Irakaskuntza zentruak. Curriculum diseinua.  
Irakasle formakuntza.  
Atzerrian ikastaro eta egonaldiak.  
Kalitatea\*. **Lacunza mundua.**

\* Lacunzak, beste behin, kalitatea bermatzen duten Europa eta mundu mailako frogak gainditu ditu, kalitatezko Q-a eta EAQUALS eta IHWO ziurtagiriak berrituaz.

 EAQUALS  
EQUALS - THE EUROPEAN ASSOCIATION  
FOR QUALITY LANGUAGE SERVICES

[www.lacunza.es](http://www.lacunza.es)



## GETTING LOST



### kontrako olatua

Izen hori jarri diote Donostiako Zinemaldiko arduradunek aurtengo ediziorako prestatu duten atal ikusgarriari. Nouvelle Vague korronteak Frantziako zinemagintzan izan duen eragina nabarmena izanik, bada korrontearen aurka edo zeharka igeri egin duen zinegilerik. Eta esatea subjektiboa bada ere, kontrako olatu horrek azken hamarkadetako filmik interesgarrienak ekarri dizkigu. Begiratu, bestela, filmen zerrenda Zinemaldiko webgunean.

[www.sansebastianfestival.com](http://www.sansebastianfestival.com)



### backwash

The people in charge of the San Sebastian Film Festival have put together this interesting section for this year's festival. While French New Wave cinema was highly influential, there were other tendencies and filmmakers who went against it. And while it is subjective to say so, we'll be able to see some of the most interesting films from this tendency from the last few decades. You can see more on the Film Festival's website.


[www.sansebastianfestival.com](http://www.sansebastianfestival.com)

### nire bizitza gaizki marraztua

Gipi komikigilearen lana maite dugu, eta miresten ere bai. The balde jarraitzen duenak badaki hori. Eta gure gozamenerako, marrazkilaria italiarra komiki berri eta berezi batekin itzuli da liburutegietara: la mia vita disegnata male. Komiki-diario moduko honetan, Gipik beste behin lilurutzen gaitu bere estiloarekin. Ezer gertatzen ez denean zenbat gauza gertatzen den inork baino hobeto islatzen dakien artista.

### my badly-drawn life

We love comic artist Gipi's work. Regular readers of The balde know that already. And to our delight the Italian draughtsman has returned to the bookshops with a new, special comic: la mia vita disegnata male. In this diary-like comic Gipi amazes us with his style once more. This artist, better than anyone, shows how so many things happen while nothing is happening.



### kafea eta galletak

Diskoen entzunaldiak egiteko asmoarekin jaio zen Kafea eta Galletak proiektua. Hasieran, musikazaleak bildu egiten ziren diskoak entzutera. Baina, modu naturalean, beste egitasmo batekin hasi ziren. Hainbat artistek beste talde baten kantuak hartu eta emanaldi xumeak egin izan dituzte. Zeintzuk? Sar zaitetz

### kafea eta galletak (coffee and biscuits)

The Kafea eta Galletak project started as a record-listening session. At the beginning, music-lovers got together to listen to each other's records. And, in a natural way, another project started from that. Various artists took other artists' songs and performed simple versions of them. Who? Visit

[www.blogari.net/kafea](http://www.blogari.net/kafea)

[www.blogari.net/kafea](http://www.blogari.net/kafea)



bernardo atxaga  
seven houses in france  
zazpi etxe frantzian

“garai berri bat hasi da”

**kongo**

Paisaia guztiak dira mentalak. Gertukoena ere ez da erabat solidoa, badu zer bait gaseosoa, metafisikoa, kimerikoa. Alegiazko geografien zale naizenez, kronikatik eta historiatic ateratzen saiatzen naiz. Eta Kongo metafora bat da, Obaba berri bat, nekazariz baino, militarrez, mertzenarioz betea. Dena den, gezurraren lengoia erabiltzen den edozein lekuren baliokide izan liteke.

**lengoia**

Eleberri hau ez da XIX. mendeko alegoria haiek bezalakoa, ez, adibidez, Voltaire, non pertsonaiak baikortasun ergela errepresentatzen duen. Ez da literatura morala ere, barrutik nobela errealista baita. Kasu honetan lengoiaik eramaten gaitu gaur egungo munduaren eremuetara. Liburuak satirarik badu lengoiairen bitartez lortzen du, eta ez ideia batekin, ez ideia bat biltzen duen metafora batekin ere.

“a new period has started”

**the congo**

All the landscapes are in the mind. What's closest isn't completely solid either, there's something foggy, metaphysical or chimerical about it. As I'm a fan of imaginary geographies, I try to bring them out from tales and history. And the Congo is a metaphor, a new Obaba. Instead of being full of farmers it's full of soldiers and mercenaries. In any case, it could be the equivalent of any place that uses the language of lies.

**the language**

This novel isn't like a 19th century parable, it isn't like Voltaire, for example, in which the characters show a stupid type of optimism. It isn't literature with a moral either, because there's a realistic novel inside. In this case, the language takes us to the ways of today's world. If the book creates satire through its language, it isn't just with a single idea, nor does it create a single idea using a single metaphor.

## helburua

Helburua ezin da inoiz bereizi idaztearen ekintzatik. Bidea, nire iritzi, hauxe da: atmosfera moduko bat sortzen duzu buruan, bertan daude oroitzapenak, teoriak, ideiak, pertsonaiak, baina forma zehatzik gabeko ezer ez. Hori buruan duzula hasten zara idazten eta testuak berak errebelatzen dizu zer esan nahi zenuen. "Zerbaiti buruz idatziko dut" edo "hau kontatzeko beharra daukat", planteamendu literario gisa ez didate funtzionatzen. Eleberria, bi pausu aurrera, bat atzera, halaxe idatzi dut.

## chrysostome

Mututasuna, lakonismoa, adierazkortasun eza dira bere ezaugarri nagusiak, eta beren inguruan mugimendu itzela sortzen dute horrelako pertsonaiek, literarioki oso bizitza aberatsa eskaintzen dute.

## biolentzia

Errukia, ontasuna, elkartasuna edota salaketa ardatz duten diskurtsoak ez dira dagoeneko entzuten. Poetikoki zentzua galdu dute. Krisi horretatik etorri zait "nabarmendu ordez, isildu egingo dut" ideia. Irakurleak bete beharreko isiltasunak daude. Egokia da esatea eguraldiaz hitz egiten duenaren antzera kontatzen ditudala liburuko biolentzia pasarteak. Eta abenturazko eleberriaren azpian maila ugari dago. Haustura bilatu dut: nola egin daiteke barre halako gauzez?

## umorea

Roland Barthesi entzun nion behin, "umorea da poesiari geratzen zaion azken etxea". Aita hil zitzaudanean poema bat idatzi nuen. Izan zitekeen elegiako, baina "Zebra eta heriotza" izena eman nion. Bertan, hainbat zebra daude hasieran eta ibaia zeharkatu bitartean bertan geratzen dira batzuk. Kontu horiez hitz egiteko umorea da bide bakarrenetakoa, ez bada bakarra. Gaur eguneha behintzat bai, bestelako hainbeste testuren ondoren.

## aldaketa

Idazkera aldatu baino, Obaba aurreko gauza batzuk berreskuratatu ditut, Obaba aurreko ahotsa. Poema hartakoa, adibidez: "Me moriré, dubidubí/ Me moriré, dubidubá/ Es posible, dubidubí/ Casi seguro, dubidubá/ Pero, ¿quién me matará?". Edo "Etiopia" bildumako "Sitiado in the beautiful morning of Bilbao" hura, eskandalua izan zena.

## garai berria

Euforiko nago, oso argi ikusten dut beste bide bat ireki dudala. Obaba hasi eta jarraitu eta jarraitu nuen bezala, garai berriaren hasiera da hau. "Nevadako egunak" lana argitaratuko dut tartean, baina jarraian etorriko da "Charlotte eta tximuak", Chrysostomeren biloba protagonistatzat duen eleberria.

## obaba

Mundu hori bukatu da, horri buruz esan beharreko guztia esan dut. Liburuak hor daude, baina Ruperrek dioten bezala, "beste bat izango zen hura". Haurtzaroaren mundua infinitua da, literaturarako, ordea, itxi egin dut. Akaso, lehentxeago eman beharko nion bukaera, bost, hamar urte lehenago, eta liburu batzuk argitaratu gabe utzi.

## lau hizkuntza

Estatuko lau hizkuntza ofizialetan argitaratu da, aldi berean, azken eleberria. Euskarazkoa pixka bat lehenago, alde sinbolikoa mantentzeko. Liburu oso gutxi daude lau hizkuntza horietan publikatzen direnak eta zentzu utopikoaren aldetik gauza ederra da. Baina prozesua latza izan da, azken hilabeteetako lana izugarria. Ez dut sekula berriz egingo.

## nevada

Zoragarria izan da egonaldia. Bizitzan, tarteka, parentesiak egitea ez dator batere gaizki. Han Europa ia ez da existitzen, Sarkozy eta bere emaztea izan ezik (eta emaztea Sarkozy baino gehiago). Ez genuen beste egitekorik: idatzi, idatzi eta idatzi. Eta lan handia egin dudanaren sentsazioarekin itzuli naiz. Egia da aberriak deitu egiten zaituela, baina ez da beharrezkoa oneoro egitea.

## the objective

The objective can never be separated from the act of writing. In my opinion, this is the route you take: A type of atmosphere is created in your head, including memories, theories, ideas, characters, but without anything specific. You start writing with what you have in your head and the text itself shows you what you wanted to say. Approaches based on "I'm going to write about something" or "I must tell this story" don't work. I take two steps forward and one step backwards when I write novels.

## chrysostome

Muteness, terseness and a lack of expressiveness are his main characteristics. And characters like that create incredible movement around them, they give a lot of life to literature.

## violence

Speeches about compassion, goodness or solidarity or based around an accusation are no longer heard. They've lost their poetic sense. Because of this change I had the idea of silencing the idea instead of proclaiming it. There are silences for the readers to fill in. You could say that the passages in which I talk about violence are as if we were talking about the weather. And there are many layers beneath the adventure novel. I looked for a breaking point: how can you laugh about this type of thing?

## humour

I once heard Roland Barthes say that humour is the last house in which there is still poetry. When my father died I wrote a poem. It could have been a eulogy, but I called it "Zebras and Death". There are a lot of zebras at the start and when they cross the river some of them get left there. Humour is one of the few ways to talk about these things, if it isn't the only way. At least that's how it is today, after so many other texts.

## the change

More than changing my way of writing, what I've done is recover some things from before Obaba, my voice from before Obaba. A poem like this, for example: I'll die, dubidubi/ I'll die, dubidubi/ Could be, dubidubi/ Almost sure, dubidubi/ But will they kill me here?. Or from the "Ethiopia" collection "Besieged in that beautiful morning of Bilbao", which was a scandal.

## the new phase

I feel euphoric, I can see very clearly that I've opened a new route. In the same way that I started Obaba and then went on and on with it, this is the start of a new phase. I'm going to publish "Nevada Days" first, but then "Charlotte and the Monkeys" will come out, a novel about Chrysostome's granddaughter.

## obaba

That world's finished, I've said all there is to say about it. The books remain, but as Ruper says, "that must have been somebody else". The world of childhood is infinite, but I've made the literary world a closed one. Perhaps I should have put an end to it a bit earlier, five or ten years ago, and left some of the books unpublished.

## four languages

This latest novel has been published in Spain's four official languages at the same time. Slightly earlier in Basque, to keep that bit of symbolism. Very few books are published in these four languages and there's a utopian beauty to that. But it's been a tough process and very hard work during these last months. I'll never do it again.

## nevada

My stay there was fantastic. And, at the same time, taking a break isn't a bad idea at all. Europe hardly exists there, with the exception of Sarkozy and his wife (and the wife more than Sarkozy). We didn't have anything else to do: writing, writing and writing. And I came back with the sensation that I'd done some great work. It's true that the place you come from calls you, but it doesn't have to all the time.





elevator  
igogailua


dress/jantzia: david del'fin  
bag/poltsa: el caballo  
shoes/zapatak: amaya arzuaga



dress/jantzia: julio diaz  
shoes/zapatak: amaya arzuaga  
pantys/mediak: platino

photos/aizakak; frann rezende  
styling/estilismoa; frann rezende  
hair styling and make up/orazkera eta makilajea; frann rezende tecni art de loreal eta bobbi brown-entzat  
model/modeloia; irene parraga - www.viewmanagement.com

dress/jantzia: amaya arzuaga





skirt/alkandora: el caballo  
trousers/galtzak: toypes  
complements/osagarriak: el caballo



AUDIO

testua/by: arkaitz villar



### Animal Collective

#### Merriweather Post Pavilion

Domino records

Prensa espezializatuak, tarteka, ezinbestekotzat hartzen duen talde horietako batean bilakatu da Animal Collective. Radiohead-en lekua betetzera kondenatuak, eztanda soniko aparta dakarte lan honetan, soinu transgenikoetatik ihes egin eta melodia koloretsuen laguntzarekin. Horren lekuko dugu "My girl", taldearen ohiko psikodelia argitsua eta disko berrian erakutsi duten heldutasunaren adibidea.

Animal Collective are a band that, now and then, have been mooted as essential by the specialised press. They have been condemned to fill the space left vacant by Radiohead. On this record, Animal Collective are back with a hugely impressive bang. They shy away from transgenic sound patterns and bury themselves in colourful landscapes. 'My girl' is an example of this, a mixture of the band's bright psychedelia with the general grown-up sounds of this new record.



### Capsula

#### Rising mountains

Bcore

Talde kontzeptua desagertzeaz dagoen honetan, eszena berpizteko aspalditik lanean diharduen talde honek badu bere lekua: gure mugetatik at hori bai. Hemen lortzen ez duten kritikaren onspena martxoan ospatutako Austingo SXSW jaialdian eskuratu zuten. Jakina da orain guztion ahotan izango direla. Capsularen arrakasta ordea urteetako lana da, "Rising mountains" lan berriak erakusten duen bezala.

The times they-are-a-changing and the concept of the 'band' is in danger of disappearing. Though they may be hard at work in other climes, this band have carved out their niche. The blessing of the critics that they lack here they achieved at the Austin South By South West festival in March. Fair enough so, they'll be the talk of the town all over the place now. Bear in mind, however, that Capsula's success is the fruit of many years' hard work. Just take a listen to 'Rising Mountains'.



### Txarly Brown

#### Más achillifunk

Lovemonk

Inolako intentzio eta pretentsiorik gabe Kataluniako rumba doinuen iraultza eragin du Txarly Brownek. Achillifunk proiektuarekin estilo honen aldarrikapena egin zuen. Proiektu honen bigarren lanean Makala, Sabo edo Txarly Brown bera aritu dira nahasketa lanetan. Rumba, soul, funk, reggaeton eta disko doinuak tartekatu dituzte, ijitoen sustraiak errespetatuz eta bildumari nazioarteko maila emanaz.

Txarly Brown has managed to turn Catalanian rumba on its head without actually meaning to do so. Quite a feat. He got this Achilfunk project together and basically went for it. This second record sees the mixing done by Makala, Sabo and the man Txarly himself. Rumba, soul funk, reggaeton and disco all have their place on this record. Nonetheless, the respect they show towards the gypsy roots is authentic and it's this mixture that gives the record it's international edge.



### Love of lesbian

1999

Autoekoizpena

Hamalau kantutan zehar maitasun historio bati buruz hitz egiten digu Love Of Lesbianek lan berrian. Horregatik emozionalki gora behera handiak biziko ditugu. Gure bizitzan zehar inoiz sentitutako emozio hauek dira hain zuzen ere diskoa berezi egiten dutenak. Pop kantu bikainak eraikita, "Incendios de nieve" -rekin negar egiten dugun bezala "Club de fans de John Boy" kantuan barre egiten dugu. Gaztelerez abestutako indie poparen erregeak.

Love of Lesbian use the fourteen tracks on their new record to talk to us of a love story. That kind of explains the emotional roller-coaster ride that lies ahead. It's these very emotions that we all have felt that make the record so special. Wonderful pop gems... we weep to 'Incendios de nieve' and we laugh to 'Club de fans de John Boy'. The kings of pop sung in Spanish.



### Diplo

#### "Decent work for decent pay"

Mad Decent

Ez naiz pertsona egokiena dj eta ekoizle honen lanari buruz hitz egiteko, gehiegi defendatzen dudalko egiten duen guztia. Horregatik Mad Decent diskoetxe - kolektibo - proiektuan gauzatutako lanen bilduma honi buruz ezer gutxi esango dut: egungo belaunaldia ezagutzeko ezinbesteko lana dela besterik ez. Laster gainera Favela On Blast filma estreinatuko du, prest egongo gara ordurako.

I'm not the most appropriate person to speak about djs and producers' work; I tend to over-defend all that's done. That's why I'll say very little about record company - collective - Mad Decent's compilation. The only thing I'll say is that it's essential. What's more, they'll soon be premiering the film 'Favela On Blast. We'll be there.



### Checkpoint Rock

b.s.o.

Talka 2009

Fermin Muguruza Palestinan bere lehen diskoa grabatzen zebilela jakin genuenean ez genuen irudikatu lan horrek honelako dimentsioa hartuko zuenik. Filma ikusi gabe, bertan entzungo dugun soinu bandak Palestinako eszena, oztopo guztien gainetik, bizirik dagoela erakusten digu. Indarra poesia, rock, hip hop edo tradizioaren batzen direnean sortzen dira honelako diskoak, emozioz beteak eta eguneroko erreallitateari aurre egiteko balio duen doinuaz kargatuak. Dam, Safaa Arapiyat edo Amal Murkus bezalakoek unibertsoa gehiago ulertzeko balio digu.

When we first heard that Fermin Muguruza was recording his latest record in Palestine, we never imagined it would reach the dimensions it has. We haven't seen the film yet but the soundtrack, overcoming all barriers, vividly demonstrates that the poetic strength, rock, hip hop mixed with tradition and everything from the Palestinian scene underlines just how alive these people are. This creative maelstrom is what they need to overcome their everyday impossibilities. It will help us to better understand the worlds of Dam, Safaa Arapiyat or Amal Murkus.



## boat beam: sirena kantuak

**Boat Beam... Nondik atera zenuten izen hau?**

Istorio bat baino gehiagoren nahasketa da. Antartikara eginiko espedizio bat, ingelesez erabiltzen den esamolde bat, baina, guztien gainetik, itsasoan bakarrik nabigatzen duen barku baten irudia atsegin genuen, iluntasunean, argi-izpi batez bere norabidea argitzen duen barku batena...

**Australiar bat (Josephine), estatubatuar bat (Alisha) eta espainiar bat (Aurora) –promozio-orriak berak dio hau ez dela txiste bat–, nola ezagutu zineten?**

Alishak eta biok lantoki berean egiten genuen lan, eta moldaketa batzuk grabatu nahi ote zituen galdetu nion. Azkenean, beste talde batekin jotzen nituen kontzertu batzuen ostean, elkarrekin jotzen hasi ginen. Beranduago, Aurora ezagutu genuen, emanaldi baten ostean gerturatu zitzaigunean. Elkarrekin jotzeko geratu ginen, kantuak ateratzen hasi ziren, eta horrela sortu zen Boat Beam...

**Madrid eta Sydney artean grabatu zenuten lan hau, elkarren artean urrutien dauden hirietan, hain zuzen. Nolako izan zen “antipodar” grabaketa hau?**

Zaila, baina oso gozagarria. Nire aurreko taldearekin biran nenbilenean bi hirien artean bizi nintzen. Toki bakoitzean ematen nuen denbora profitatzen nuen konposatzeko, moldatzeko eta grabatzeko.

**Zuen musikak, aldi berean, poza eta malenkonía islatzen du. Beste talde batzuekin konparatu genezake eta iturri ezberdinak aipatu, baina era berean, soinu propioa duzuela iruditzen zaigu. Zuen burua definitzen ausartzen zarete?**

Plazer gehien ematen diguna nahasten saiatzen gara –harrapatzen zaituen melodia bat, edo emozioaren bat eragiten dizun erritmo bat–, eta, horrez gain, soinu eta hitz arraroak edo interesgarriak ere bilatzen ditugu, beste inon topatuko ez dituzunak. Geruza disonanteekin eta erritmo zailekin esperimentatzen dugu, baina entzuleak beti sentsazio eder batez goza dezan saiatzen gara.

**Lehenengo diskoa duzue –ez dirudien arren– eta zuen musika ezagutzeko aukera eman digu. Baina eskenatokian, nolakoak dira Boat Beam-en zuzenekoak?**

Hirurok jotzen dugu instrumentu bat baino gehiago: biola, txeloa, gitarra akustikoa eta elektrikoa, pianoa eta ahotsak. Diskoan baino elementu gutxiagorekin jotzea atsegin dut, ez garelako inoiz gainezka sentitzen. Soinuan espazioa geratzen da eta oso ongi entzuten dira biolaren eta txeloaren detailerik txikiak ere. Etorkizunean, beste elementu batzuk eramango ditugu hala ere, gure entzuleari beti zerbait berria eta ezberdina eskaini ahal izateko.

**Hemen, erredakzioan, badugu talde garajero batean jotzen duen kide bat, baditugu hip-hop zaleak, Duran Duran atsegin dutenak, bai eta Kiss fm jartzen duenik ere! Hori horrela bada, zergatik ari gara zuen diskoa behin eta berriro entzuten?**

Oso ona delako! Txantxa da. Izan liteke gu ere estilo horiek guztiak entzuten ditugulako, eta gure musikan arrastoa uzten dutelako. Estilo guztiak dute zerbait baliagarria, eta ni, nire aldetik ere, saiatzen naiz jende askori gusta dakioken zerbait sortzen.

## boat beam: siren songs

**Boat Beam... where did you get the name from?**

It's a mixture of different stories. From an expedition to the Antarctic, from an expression used in English, but above all else we had the agreeable image of a single boat sailing on the sea, in the dark, a boat that sees its way using a single beam of light

**An Australian (Josephine), a woman from the States (Alisha) and a Spaniard (Aurora), –on the promotional sheet itself it says this isn't a joke– how did you meet each other?**

Alisha and I worked in the same place and finally I asked her if she wanted to record some songs and after a concert by another group I was playing with we started playing, and later on Aurora came, it all happened to us after a concert. We kept on playing together, songs came about and that's how Boat Beam was born.

**You recorded this work between Madrid and Sydney... in such far-away cities, what was it like making this “antipodean” recording?**

It was tough but also a great pleasure. While I was on tour with my previous group I lived in between the two cities. I made the most of my time in each place to compose, arrange and record.

**Your music reflects happiness and sadness at the same time. Compared with some other groups you have different influences, but at the same time we think you have your own sound. Would you dare to define what you do?**

We try to mix the things we like best. We create rhythms for the melodies and emotions that strike us and, at the same time, we use strange and interesting lyrics, things other people haven't found. We experiment with difficult dissonances and rhythms, but we want the listeners to always enjoy beautiful sensations.

**This is your first disk –although that seems unlikely– and this gives us the chance to hear your music, but what are Boat Beam like live?**

